


INFLAZIOA

Argindarraren prezioak KPIaren igoera baldintzatzen du

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko urte arteko inflazioak, urtarrilean izandako gorakadaren ostean, %0,3ko tasa izan zuen otsailean, aurreko hilean baino hiru hamarren gutxiago. Erregaien gorakada elektrizitatearen prezioek izan zuten beheranzko joerarekin orekatu zelako gertatu zen apaltze hori. INEk martxoan Estaturako aurkeztu duen aurrerapenak pentsarazten du hilabete horretan kontrako mugimendua gertatuko dela eta KPI indizeak igoera bizia ezagutuko duela.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2019	2020	2021eko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,0	-0,1	0,3	0,3
Azpiko inflazioa (%80,5)	1,0	0,8	0,5	0,4
- Elikagai landuak (%16,7)	0,6	1,7	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	0,3	0,2	0,1
- Zerbitzuak (%40,2)	1,6	0,8	0,3	0,1
Hondar inflazioa (%19,5)	0,8	-4,0	-1,1	-0,1
- Landu gabeko janariak (%9,5)	1,3	4,0	3,1	0,3
- Energia (%10,0)	0,4	-9,4	-4,1	-0,4


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA



Horiek horrela, otsailean, KPI indizeak berriro ere beheranzko joera hartu zuen, urtarrilean gora egin ondoren (%0,6). Hileko horretan, amaiera eman zitzaion bederatzi hilabetez jarraian tasa negatiboak jasotzeari, Filomena depresioak ekarritako hotz boladaren ondorioz elektrizitateak gora egin zuelako. Dagoeneko adierazi den bezala, batez ere erregaiak izan ziren prezioek gora bultzatu zutenak, nahiz eta jarduera ekonomikoak pandemiaren aurreko ohiko erritmoa berreskuratu gabe jarraitu. Hori guztia dela eta, garraio tal-

deak gora egin zuen gehien aurreko hilabetearekin alderatuta, puntu bat eta bederatzi hamarren. Igoera horrekin batera, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea ere igo zen (%2,2). Aitzitik, etxebizitzek ia bost puntu egin dute behera, eta urte arteko tasa gehien murriztu duen taldea izan da, argindarraren merkatzearen ondorioz. Era berean, aisialdian eta kulturen beherakadak izan ziren, pakete turistikoa gutxiago garestitu zirelako, bai eta hoteletan, kafetegietan eta jatetxeetan ere, sektore horretako murrizketen ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2021eko otsaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,3	0,0	0,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,2	1,6	0,8
Edari alkoholik eta tabakoa	0,1	0,2	3,5
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	0,7
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-1,2	-1,1	0,5
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,5	0,8
Osasuna	0,3	0,5	0,2
Garraioa	-0,9	-1,2	0,4
Komunikazioak	-3,5	-3,5	-1,3
Aisia eta kultura	-0,9	-0,4	1,9
Hezkuntza	0,6	-0,2	0,1
Jatetxeak eta hotelak	0,9	0,0	0,7
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,2	0,9	1,7

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.